32 » Gasteiz Big Bandek 'W'Ellington featuring Kodigo Norte' hamar hazbeteko diskoa atera du

34 » Zack Snyder zinemagileak Superman superheroia berreskuratu du 'Man of Steel'-en.

Obaba, 25 urte geroago

Bernardo Atxagaren 'Obabakoak' liburuaren urteurrenerako edizio berezia prestatu du Erein argitaletxeak

Txabi Alvarado Bilbo

Mende laurdena igaro da Obaba euskal literaturaren parte bilakatu zenetik. Horregatik, *Obabakoak* liburuaren edizio berri bana kaleratu dute Erein eta Alfaguara argitaletxeek, euskaraz lehenak eta gaztelaniaz bigarrenak.

Euskarazko edizioa «eguneratua» dator, Iñaki Aldekoa Ereineko editorearen hitzetan. Gaurkotze lan hori hizkuntzaren aldetik egin dutela azaldu du Aldekoak, «25 urte ez direlako alferrik pasatzen». *Obabakoak* euskal literaturaren barruko «liburu handia» dela gaineratu du editoreak, eta Euskal Herrian zehar «literatura berri bat» ereiten lagundu duela.

Gaztelaniazko edizioan, aldiz, aldaketarik ez: Atxagak berak egindako itzulpena bere horretan mantendu dute. 1988tik, argitaratu zenetik, dozenaka hizkuntzatara itzuli dute *Obabakoak*: japonierara, hebreerara eta koreerara, adibidez.

Bilbon Arriaga plazan jarritako karpa batean egin dute bi argitalpenen aurkezpena, Bilbo Zaharra euskaltegiak *Obabakoak*-en urtemuga dela-eta egunotarako antolatutako ekitaldien barruan; eta Bernardo Atxaga ere bertan izan da. Liburua idazteko «oso haurtzaro sakoneko oroitzapenak» hartu zituela azaldu du idazle gipuzkoarrak; txikitan jasotako inpresio horiek guztiak baliatu zituela Obaba sortzeko. Hala ere, azpimarratu du idazleak ez duela inoiz bakarrik idazten; beste kultura, garai zein jatorrietako idazleekin «ispiluen joko bat» osatzen duelako.

Omenaldiaren inguruan galdetuta, «aurkako sentsazioak» dituela aitortu du Atxagak, ibilbide baten amaieraren irudia ematen duelako berak aktibo jarraitzen duen arren. «Badirudi omenaldi hau bukatzerakoan etxera joateko eta ez irteteko aginduko didatela», esan du irribarre batekin.

Pilar Reyes Alfaguara argitaletxearen ordezkaria eta Bernardo Atxaga, atzo, Bilbon. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Marrazkiak

Irudietan datza aurkeztu berri duten edizioaren eta 80ko hamarkadan argitaratu zenaren arteko alde nagusia. Argitalpen berria Marta Cardenas (Donostia, 1944) artistaren hamahiru ilustraziorekin baitago hornitua. Atxagaren ildoari jarraiki, irudiak egiteko orduan hainbat kultura eta garairen eragina jaso duela azaldu du Cardenasek, eta irudi bakoitza prozesu luze baten ondorio dela gaineratu du. Atxaga eta Cardenasen arteko bigarren elkarlana da; lehena, *Erlea* aldizkarian izan zen.

> Liburu honetarako oso haurtzaro sakoneko oroitzapenak hartu nituen»

> «Badirudi, omenaldiak bukatzerakoan, etxera joateko eta ez irteteko aginduko didatela»
> **BERNARDO ATXAGA**
> Idazlea

Euskarazko bertsioan, ilustrazioak liburuaren orrialdeetan txertaturik topatu daitezke. Gaztelaniazkoan, aldiz, liburuarekin batera datorren kutxan daude, laminatan banaturik. Irudiekin batera, idazlearen hiru hitzaldi biltzen dituen liburu bat dago. *Un lugar llamado Obaba, Mi primera lengua* eta *Superficies de la literatura vasca* dira aipatutako testuak; eta ez dira liburu formatuan inoiz argitaratu, Pilar Reyes Alfaguarako zuzendariak azaldu duenez. *Leku hutsak, hitz beteak* filma da kutxa osatzeko baliatu duten hirugarren elementua —gaztelaniazko bertsioan—. Joxeangel Arbelaitzek zuzendutako dokumentala da.

Etengabeko irakurketa

Edizio berezien aurkezpena ez da, baina, Klasikoen irakurketaren baitan Obabari eskainiko zaion tarte bakarra izango. Izan ere, aurtengo edizioa liburu horri dedikatua dago guztiz. Astelehenean eman zitzaion hasiera egitarauari, eta bihar amaituko da, Arriaga antzokian egingo den liburuaren irakurketa kolektiboarekin.

Bihar irekiko da 'Aldiriak', Xabier Erkizia eta Maialen Lujanbiorekin

Donostiako erreketaren bigarren mendeurrena dela eta, hiru kultur esku-hartze egingo dira datozen egunetan

Gorka Erostarbe Donostia

Donostia ari da jada duela bi mendeko hiriaren ia erabateko suntsitzea gogora ekartzen. Testuinguru horretan hasiko dute *1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea* egitasmoa, hilaren 28an. Lehenago, ordea, hitzaurre gisa planteatutako hiru esku hartze artistiko egingo dira, *Aldiriak* izeneko sailaren barruan. Aurrena, Maialen Lujanbio eta Xabier Erkiziaren *Hegi, Egia, Egiak* ikusentzukizuna izango da. Bihar egingo da, Donostian, San Telmo museoan, udal liburutegiko sotoan eta Bretxa saltoki gunean.

Ornitorrinkus proiektuan aritu ziren estreinakoz elkarrekin, *Txori mugariak* produzitzeko lanetan. Emanaldi berrian «ikuspegi desberdinen aldiberekotasuna» esploratuko dute. «Gertaera zehatz baten aurrean, zer tresna desberdin ditu jendeak gertaera hori hautemateko?», galdegiten dute. *Hegia, egia* eta *egiak* hitzen homofoniatik abiatuta, «begiraden aniztasuna gorpuztea» da kontua, diotenez. «Ekintza bera eta aurkezteko hiru modu aldi berean hobeto ulertuko al du, danborrak ematen dizkion aginduak baino? Beharbada, hori da kontua, besterik gabe, desfile militarren ikuskizunean ehunka ikuspegiren (entzuten duten belarrien) konplexutasuna berreskuratzea, soldaduen boten orroetatik».

Bigarren ekitaldia Bulegoa z/b kolektiboak egingo du, ekainaren 22ko 18:00etatik ekainaren 23ko 18:00etara. Beatriz Caviak (teoria sozialak), Isabel Navaranek (arte eszenikoak) eta Miren Jaio eta Leire Bergarak (ikusmen arteak) osatzen dute kolektiboa. *Denboren polifonia* proposamenaren bidez, helburua da Hondarribiko Guadalupeko Gotorlekuaren kanpoaldean ekaineko gau bateko eta hurrengo egunean topaketa bat sortzea: «Lorategi filosofiko moduko bat izango da». Bestalde, Oier Etxeberria artista eta musikariak *Pure Data (Hamar)* emanaldia eskainiko du ekainaren 26tik 29ra, Artzain Onaren parrokian. Ilustrazioko pentsamenduak Gipuzkoako eta Euskal Herriko testuinguruan aurkitu zituen erresistentziei buruzko ikerketatik abiatzen da, honako kasu honetan laburbilduta: sistema metriko hamartarra txertatzea.